



# Gure amaren sekretua Lanketa didaktikoak



LEHEN ATALA: HELENA



## ULERMENA

1. Norekin bizi zen Helena?

---

---

2. Non bizi ziren?

---

---

3. Nolako zen bere aita?

---

---

4. Poloniara joan zirenean, non bizi ziren? Nondik ateratzen zuten dirua?

---

---

5. Non eta nola lortu zuen lana Helenak?

---

---

6. Nor da Kasmir? Nolako bizitza izan zuen umetan?

---

---

7. Nortzuk bizi ziren Helenaren etxean?

---

---



## GRAMATIKA

1. Bila itzazu liburuan ondorengo hitzen sinonimoak:

- Jakina (3.or)
- Iaioa (4.or.)
- Erabat (4.or.)
- Sasoi (8.or.)
- Gaitz (8.or.)
- Legez (9.or.)
- Ortuariak (12.or.)
- Bildu (15.or.)
- Motz (16.or.)



# Gure amaren sekretua Lanketa didaktikoak



- Berba (16.or.)
- Lortu (17.or.)
- So egin (19.or.)
- Gai (29.or.)
- Apurtu (32.or.)
- Ezbaian ((37.or.)
- Itaundu (37.or.)
- Ohartu (38.or.)
- Faborez (40.or.)
- Gordeta (41.or.)
- Bikaina (42.or.)
- Jazoko (44.or.)
- Oroitu (45.or.)
- Sekula (45.or.)
- Ahul (45.or.)

## 2. “Ez dago esan beharrik sagar hura inoiz jan dudan sagarrik gozoena dela” (5.orrialdean)

### “Ez daukazu zertan itxaron, nik sagarren bat ekarri arte” (14.orrialdean)

#### **Ez duzu ZERTAN joan**

Motibo falta edota behar falta adierazteko erabiltzen da.  
Batzuetan behar izan aditza erabiltzen da gauza bera adierazteko:

#### **Ez duzu joan BEHARRIK**

#### **Berridatzi ondorengo esaldiak:**

1. Ez dugu zertan horrelako gauzarik esan.

---

2. Ez daukat lagunei azalpenik eman beharrik.

---

3. Ez daukate zertan guri gezurrik esan.

---

4. Ez daukazu gurasoei egia osoa esan beharrik.

---



# Gure amaren sekretua Lanketa didaktikoak



5. Ez dut zertan lan guztia nik bakarrik egin.

---

6. Ez duzue erabili eta gero gela osoa garbitu beharrik.

---

7. Ez daukat zuek guztiok jasan beharrik.

---

8. Haiek ez daukate zertan jairako gauza guztiak erosteaz arduratu.

---

### 3. “Naziak Poloniara laster helduko direlako zurrumurrua zabaldu da herrian” (24.orrialdean)

#### - (e)LAKO + IZENA

Zenbait izenek, erlatiboa egitean, -(e)N + IZENA moduz gain, beste hau ere onartzen dute.  
Susmoa, ideia, zurrumurrua, esperantza, aitzakia, berria, seinalea...

#### Berridatzi ondorengo esaldiak:

1. Mikel gurekin haserre dagoela uste dute lagunek.

\_\_\_\_\_ -lako ustea \_\_\_\_\_

2. Izaskun Miamin ederto bizi dela zabaldu da herrian.

\_\_\_\_\_ zurrumurrua \_\_\_\_\_

3. Espero dut datorren urtean udaleko oposaketa gainditzea.

\_\_\_\_\_ itxaropena \_\_\_\_\_

4. Ez zen klasera etorri eta elurragatik izan zela esan zigun.

\_\_\_\_\_ aitzakia \_\_\_\_\_

5. Horma guztiak zikindu dituzte eta umeak izan direla uste dut.

\_\_\_\_\_ susmoa \_\_\_\_\_



# Gure amaren sekretua Lanketa didaktikoak



## MINTZAMENA

1. Egin ezazue lehenengo atalaren laburpena ahoz.

2. Komenta itzazue ondorengo esaldiak:

“Aitak nazismoa atsegin du; amak, ostera, benetan gorrotatzen du mugimendu hori”. Posible da bikote batean politikoki oso ideia desberdinak edo elkarren kontrakoak dituzten bi pertsona elkartzea?

“Zorionez ama zuhurra izan da eta soldataren zati bat isilpean gordetzen jakin du. Diru horri esker, etxetxo bat erosi du Sokal izeneko herrian, bere jaioterrian, alegia”.

Zuk aurrezten duzu dirurik? Eta txikitan aurrezten zenuen dirurik? Zertarako?

“- Gauza hauetatik bat bakarra aukeratu beharko bazenu, zein aukeratuko zenuke: edertasuna, jakituria ala aberastasuna? - Aberastasuna aukeratuko nuke. Edertasunak ez du luzaroan irauten. Bestalde, jakituna izatea ondo dago, baina jakituriak ez ditu urdail hutsak betetzen. Gainera, dirua edukiz gero, liburuak erosi eta gauza mordoa ikas dezakegu. Diruak askatasuna ematen dizu, eta inguruko jendea babesteko aukera ere bai”.

Ados zaude? Zeuk ere aberastasuna aukeratuko zenuke?

“Munduan hiru pertsona mota bereizten ditut nik, Helena. Batzuek katua zaurituta ikusiko zuten, baina aurrera jarraituko zuten, jaramonik egin gabe. Beste batzuek katua ikusiko zuten eta «*katu gaixoa!*», pentsatuko zuten bere arterako, baina eurek ere aurrera egingo zuten, ezer egin gabe. Azkenik, hirugarren talde batean katuez errukitu eta lagundu egiten duten pertsonak daude”.

Katu zauritu bat aurkitu kalean eta, nola jokatuko zenuke? Hiru aukeretatik, zein da egokiena zure ustez?

## BIGARREN ATALA: BRONEK



## ULERMENA

1. Non lan egiten zuen umetan Bronek-ek?

---

---

2. Zer gertatu zitzaion Bronek-en aitari?

---

---

3. Norekin ezkondu ziren Bronek eta Dawid? Nola egin zuten tratua?

---

---

4. Zer egin behar zuten juduek jendeak juduak zirela jakiteko?

---

---



# Gure amaren sekretua Lanketa didaktikoak



5. Zer gertatu zitzaion Dawidi adreilu enpresara zihoala uste izan eta gero?

---

---

6. Norengana jo zuen Bronek-ek laguntza bila? Guztiek lagundu zioten? Nork eman zion laguntza?

---

---

7. Zer gertatu zen alaba jaioberriarekin?

---

---

8. Non sartu zituen Franciszkak? Nola pasatzen zuten denbora?

---

---

---



## GRAMATIKA

1. **Bila itzazu liburuan ondorengo hitzen sinonimoak:**

- Gertu (64.or.)
- Hautatu (67.or.)
- Ahoz aho (69.or.)
- Xedeak (70.or.)
- Ortzi (72.or.)
- Garrasika (98.or.)
- Hankak (98.or.)
- Tentu (98.or.)
- Saltoka (100.or.)
- Akatsik (102.or.)
- Aitzinean (102.or.)
- Gerturatzen (102.or.)

2. “Judu guztiok plaza batean bildu gaituzte, abereak bagina bezala” (76.orrialdean)

“Kortara ekartzen du txerrientzako bazka izango balitz bezala” (96.orrialdean)

**Ba-... bezala Baldintza hipotetikoa eta bezalarekin osaturiko egitura.**



# Gure amaren sekretua Lanketa didaktikoak



## Lotu esaldiaren hasiera amaierarekin:

- |                                      |   |
|--------------------------------------|---|
| 1. Haserre egongo balitz bezala      | A. erabili dugu haien ordenagailua                |
| 2. Bere laguna izango balitz bezala  | B. tratatzen gaituzte administrazioan.            |
| 3. Leloak izango bagina bezala       | C. hitz egin zidan atzo, aurpegira begiratu gabe. |
| 4. Munduko zentrua balitz bezala     | D. eraman zuen bere etxera bazkaltzera.           |
| 5. Nire etxean egongo banintz bezala | E. egon nintzen Amaiaren etxean.                  |
| 6. Gurea balitz bezala               | F. hitz egiten du politikari horrek.              |

## 3. “Ea izen horrek zoriona ekartzen dion berari” (75.orrialdean)

### “Ea denok hartzen gaituzten esan dit Dawidek” (83.orrialdean)

**Ea ...-n!**  
**Nahia edo itxaropena adierazteko.**

## Egoera irakurri eta egin esaldiak nahia adieraziz:

1. Semeak bihar lasterketa bat izango du ikastolan eta irabaztea espero dut.

Ea \_\_\_\_\_ !

2. Biharko lana bukatu behar dugu eta ez dakit helduko garen.

Ea \_\_\_\_\_ !

3. Zuek ikusteko gogo itzela daukat.

Ea \_\_\_\_\_ !

4. Gustatuko litzaidake nire lehengusua afarira etortzea.

Ea \_\_\_\_\_ !

5. Esne Beltzaren kontzertura joan nahiko nuke.

Ea \_\_\_\_\_ !

## 4. “Eskerrak berak egin duen!” (69.orrialdean)

**Eskerrak ... -n !**  
**Zorionez gertatu ez den zerbait adierazteko erabiltzen da.**



# Gure amaren sekretua Lanketa didaktikoak



Egoera irakurri eta egin esaldiak egitura erabiliz:

1. Istripua izan zuen kotxearekin baina ez zitzaion ezer gertatu.

Eskerrak \_\_\_\_\_ !

2. Lana gaurko bukatu behar nuen, bestela ez zuten eskaera onartuko, eta azkenean lortu dut bukatzea.

Eskerrak \_\_\_\_\_ !

3. Ez daukagu autorik txangora joateko, baina Mikelek esan du berak eramango gaituela.

Eskerrak \_\_\_\_\_ !

4. Kartera ahaztu zitzaidan eta Aintzaneke ordaindu behar izan zidan bazkaria.

Eskerrak \_\_\_\_\_ !



## MINTZAMENA

1. Egin ezazue bigarren atalaren laburpena ahoz.

2. Komenta itzazue ondorengo esaldiak:

**“Anaia eta biok hezur eta mami izan gara betidanik. David ni baino urtebete gazteagoa baino ez da, baina, hala ere, sorbaldara ere ez zait heltzen. Agian horregatik eduki dut beti bera babesteko joera” (61.orrialdean)**

Badaukazu neba-arrebarik? Nolakoa da zuen arteko harremana? Nolako harremana izan zenuten txikitan?

**“ Bizimodu hobea lortzeko, garrantzizkoa da lanean atsegina izatea. Zenbat eta atseginagoa izan, orduan eta lan hobeak lortzen dituzu” (66.orrialdean)**

Egia da hau? Zer da garrantzitsuena lan bat aurkitzeko orduan? Itxura garrantzitsua da? Curriculuma? Zer gehiago?

**“ Handik lasterrera ezkontzagina heldu da gure etxera. Amak deituta, bi ahizpa aurkeztu nahi dizkigu. Davidek eta nik elkarri begiratu diogu, eta anaiak esan du: Zeuk aukeratu” (67.orrialdean)**

Ezkontzeginak emazteak ekarri zizkien eta haiek bana aukeratu zuten. Zer iruditzen zaizue ezkontzak horrela adostea? Ezagutzen duzue adostutako ezkontzarik?

**“Adiskide askoren atea jo dut, baina alferrik izan da” (88.orrialdean)**

Une txarretan norengana jotzen duzu laguntza bila? Familia edo lagunak dira zure ondoan daudenak? Zenbat lagun dituzu?



# Gure amaren sekretua Lanketa didaktikoak



HIRUGARREN ATALA: MIKOLAJ



## ULERMENA

1. Nola ezagutu zuten elkar Mikolajen gurasoek?

---

---

---

2. Zer dela eta joan ziren Mikolaj eta ama azokara arrautza freskoak jatera?

---

---

---

3. Zer gertatu zitzaien azokan?

---

---

---

4. Zergatik egin zion Wolenski doktoreak ebakuntza komandanteari? Nola atera zen ebakuntza?

---

---

---

5. Non ezkutatu zuen Mikolajen familia Franciszkak?

---

---

---

6. Zer gertatu zen mezularia Franciszkaren etxera joan zen egunean eta Mikolajen aita ezkutalekutik atera zenean?

---

---

---

7. Nola ikasten zuen Mikolajek?

---

---

---





## GRAMATIKA

### 1. Bila itzazu liburuan ondorengo hitzen sinonimoak:

- Azkarra (105.or.)
- Gogorra (105.or.)
- Aditu (106.or.)
- Tamalez (112.or.)
- Zur eta lur (112.or.)
- Debekatu (117.or.)
- Beharra (117.or.)
- Doi-doi (121.or.)
- Ekia (127.or.)
- Beteta (128.or.)
- Lehenengoz (132.or.)

### 2. “Aitak ez dio galdetu nahi izan neskak jantzirik zeraman soinekoa berea ote zen” (108.orrialdean)

“Prest egongo ote litzateke ama, nire bizitza arriskuan jartzeko, norbait salbatzeagatik? Auskalo!”  
(123.orrialdean)

### “Segurua ote da, Franciszka?” (131.orrialdean)

**OTE:** Zalantza edo susmoa adierazteko erabiltzen da. Batzuetan gogoeta kutsua ematen dio galderari.

### Egin galderak “ote” partikula erabiliz:

1. Ez dakit non utzi dudan poltsoa eta neure buruari galdetu diot:

- \_\_\_\_\_

2. Ez dakit ea atzo Maitane klasera etorri zen ala ez.

- \_\_\_\_\_

3. Denda batean nago lagun batekin arropak ikusten eta jaka bat gustatu zait, baina ez dakit jakak zenbat balio duen. Honako galdera hau egin dut altuan:

- \_\_\_\_\_

4. Etxera heldu naiz eta dena hankaz gora aurkitu dut. Galdera hau egin diot neure buruari:

- \_\_\_\_\_

5. Lagun batek bihar goizeko zazpietan nire etxera etorriko dela esan dit, baina ni ez nago ziur garaiz helduko den. Zer esango dut?

- \_\_\_\_\_

6. Lantokira heldu naiz eta ezezagun bat ikusi dut bertan. Neure buruari galdetu diot:

- \_\_\_\_\_



# Gure amaren sekretua Lanketa didaktikoak



3. “Ana eta biok aho zabalik gelditu gara, aitaren hitzak sinetsi ezinik” (115.orrialdean)

Lotu esaldiaren hasiera amaierarekin:

- |  |  |
|--|--|
| 1. Goizean goiz etorri naiz Bilbora, baina | A. ikasgai bat gainditu ezinik                     |
| 2. Lana bukatu ezinik nabil                | B. aparkatu ezinik ibili naiz orain arte           |
| 3. Urduritasuna dela eta,                  | C. kontzentratu ezinik ibiltzen gara               |
| 4. Bulegoan zarata handia egoten denez,    | D. istripu larria izan zuen eta                    |
| 5. Zazpi urte daramatza karrera egiten     | E. eta ez dakit oportetara joan ahal izango naizen |
| 6. Ibili ezinik geratu da                  | F. lo egin ezinik nabil                            |



## MINTZAMENA

1. Egin ezazue hirugarren atalaren laburpena ahoz.

2. Komenta itzazue ondorengo esaldiak:

**“Gure aita medikua da eta orain erietxeko zuzendaria da. Herritarrek kalean begirunez agurtzen dute” (105.orrialdean)**

Lanbide batzuk beste batzuk baino hobeto ikusita omen daude. Zeintzuk daude hobeto ikusita eta zeintzuk txartoago?

**“Aitari oso zaila egiten zaio inori laguntza eskatzea. Ohituta dago jende guztiak berari laguntza eskatzen” (117.orrialdean)**

Erraz eskatzen duzu laguntza? Estutasun batean zaudenean, nori eskatzen diozu laguntza?

**“Dena den, oparitutako soineko horietako baten bat oso gogokoa ez daukanean, berak baino gehiago probetxa dezakeen norbaiti ematen dio” (107.orrialdean)**

Zer egiten duzu opariren bat gustuko ez duzunean? Esan egiten duzu ala isilik geratzen zara? Saldu duzu inoiz gustatu ez zaizun opariren bat?

## LAUGARREN ATALA: VILHEIM



## ULERMENA

1. Norekin bizi zen Vilheim Alemaniako iparraldean? Non zeuden bere gurasoak?

---

---



# Gure amaren sekretua Lanketa didaktikoak



2. Nolakoak izaten ziren amaren bisitak?

---

---

3. Zein aholku eman zion Omak Vilhaimi Alemanian gerra piztu zela esan zionean?

---

---

4. Zer ikusi zuen zaintza lanetan ari zen batean?

---

---

5. Nola ezagutu zuen Vilheimek Franciszka?

---

---

6. Non ezkutatu zuen Franciszkak Vilheim? Nolakoa zen ezkutalekua?

---

---



## GRAMATIKA

1. Bila itzazu liburuan ondorengo hitzen sinonimoak:

- Zori (135.or.)
- Benetan (136.or.)
- Zehar (139.or.)
- Une (147.or.)
- Pisu (149.or.)
- Pisutsu (149.or.)
- Hizketan (149.or.)
- Goibel (149.or.)
- Gaineratu (150.or.)
- Altuera (151.or.)
- Auskalo (153.or.)
- Otu (154.or.)

2. “ Behin baino ez zen ni ikustera etorri, artean haur txikia nintzela” (136.orrialdean)

“Afaltzen ari ginela, leihotik begiratu eta geure ardiak ikusi genituen...” (139.orrialdean)

“Bart, zaintza lan horietako bat egiten ari nintzela, kale bat biratzean, hesiaren azpitik ihes egiten saiatzen ari zen gizon bat ikusi dut” (143.orrialdean)



# Gure amaren sekretua Lanketa didaktikoak



## Berridatzi ondorengo esaldiak:

1. Txikia nintzenean, Mungiako ikastolara joaten nintzen lagunekin batera.

\_\_\_\_\_ -la \_\_\_\_\_

2. Gure lehengusuak 24 urte zituenean istripua izan zuen eta oso larri egon zen.

\_\_\_\_\_ -la \_\_\_\_\_

3. Pasa den ostegunean euskaltegia nentorren. Bat-batean laprast egin eta putzu batera erori nintzen.

\_\_\_\_\_ -la \_\_\_\_\_

4. Abesbatza abesten ari ginen. Halako batean barrez hasi eta abestu ezinik ibili ginen entsegu osoan zehar.

\_\_\_\_\_ -la \_\_\_\_\_

5. Gasteizerako autobusean zihoan. Maleta lapurtu zioten eta heldu zenean dena falta zitzaiola konturatu zen.

\_\_\_\_\_ -la \_\_\_\_\_

6. Pasa den asteburuan barbakoa bat egiten ari ziren. Bat-batean haize bolada batek dena harrotu eta ia-ia mendiari su eman zioten.

\_\_\_\_\_ -la \_\_\_\_\_

## 3. “Ez ikusiarena egin eta aurrera egin dut” (143. orrialdean)

### Bete itzazu hutsuneak:

1. Auzokide batekin txarto konpontzen naiz eta kalean ikusi dudanean beste aldera begiratu du.

\_\_\_\_\_ -rena egin dit.

2. Klasean beti tontakeriak egiten ibiltzen da besteek barre egiteko.

\_\_\_\_\_ -rena egiten du beti.

3. Erosketak egitera joan behar duela esan diot pisukideari baina berak entzun izan ez balu bezala ospa egin du.

\_\_\_\_\_ -rena egin du.

4. Ez daki gai horretaz ezer baina beti jakingo balu bezala hitz egiten du.

\_\_\_\_\_ -rena egiten du.

5. Ez da oso pertsona jatorra, atzetik gaizki esaka ibiltzen den horietakoa da, baina gero zurekin dagoenean jator plantak egiten ditu.

\_\_\_\_\_ -rena egiten ibiltzen da beti.



# Gure amaren sekretua Lanketa didaktikoak



## MINTZAMENA

1. Egin ezazue laugarren atalaren laburpena ahoz.

2. Komenta itzazue ondorengo esaldiak:

**“Ondo pentsatuta, hemen gogoz kontra gauza mordoa egiten dudanez, haragia jatea beste bat besterik ez da” (146.orrialdean)**

Zeintzuk dira gogoz kontra egiten dituzun gauzak? Eta benetan gogoz egiten dituzunak?

**“Etxea oso apala da, baina jatekoa primerakoa. Afalostean, kantuan hasi gara” (147.orrialdean)**

Ospakizunetan-eta, kantuan egiteko ohiturarik baduzue?

Zer egiten duzue afalosteetan? Lagunartean abesten duzue? Zer abesten duzue?

**“Sasoian egoteko, ganbaran etzanda nagoen bitartean, gorputzeko gihar guztiak luzatzen ditut. Bestalde, abdominalak eta flexioak ere egiten ditut” (152.orrialdean)**

Egiten duzu kirolik? Zenbatero? Zein kirol? Konta ezazu.

## AZKEN ATALA: HELENA



## ULERMENA

1. Nola lortu zuen Franciszkak soldaduek tankeak beste leku batera eramatea?

---

---

---

2. Zenbat jende zeukan Franciszkak bere etxean? Non zeuden ezkutatuta?

---

---

---

3. Gerra amaitu ondoren, zer egin zuen bakoitzak? Nora abiatu ziren?

---

---

---



## GRAMATIKA

### 1. Bila itzazu liburuan ondorengo hitzen sinonimoak:

- Alboan (159.or.)
- Zain (159.or.)
- Kontuan hartu (160.or.)
- Kasu egin (160.or.)
- Berezia (161.or.)
- Triste (162.or.)
- Zatiak (162.or.)
- Korrika (162.or.)
- Asko (163.or.)
- Eskutitz (163.or.)
- Amaitu (163.or.)
- Izua (164.or.)
- Tentuz (164.or.)
- Ume (165.or.)
- Esnatu (165.or.)
- So egin (166.or.)
- Sarritan (167.or.)
- Kemen (167.or.)
- Gaitz (168.or.)
- Itaundu (169.or.)
- Gura (169.or.)
- Noski (170.or.)
- Korrika (171.or.)

### 2. “Dudarik gabe, maitasuna da, eman ahala, handitu egiten den ondasun bakarra” (183.orrialdean) Jarraian dauden esaldiak berriatzi itzazu:

**AHALA:** Aditz-partizipioarekin erabiltzen da. -(e)N NEURRIAN / -(e)N HEINEAN egituraren parekoa

1. Jendea zahartzen den neurrian berekoiago bihurtzen da.

\_\_\_\_\_ ahala \_\_\_\_\_

2. Dirua irabazten duen heinean gastatzen du Mikelek.

\_\_\_\_\_ ahala \_\_\_\_\_

3. Jakiak mahaira atera eta berehala jaten ditugu guk txokoan.

\_\_\_\_\_ ahala \_\_\_\_\_



# Gure amaren sekretua Lanketa didaktikoak



4. Entzungaia entzuten duzuen heinean erantzun itzazue galderak.

\_\_\_\_\_ ahala \_\_\_\_\_

5. Azterketa eguna hurbiltzen den heinean ikasleak gero eta urduriago daude.

\_\_\_\_\_ ahala \_\_\_\_\_

3. “Elkar ezagutuko balute, lagun onak izango liratekeelakoan nago” (166.orrialdean)

“Hala ere, amesgaizto hau sekula santan amaituko ez delakoan gaude denok” (167.orrialdean)

## Berridatzi ondoko esaldiak:

1. Hasieran Franciszkaren etxean denbora labur batez ezkutatuko ginela uste genuen guztiok.  
\_\_\_\_\_ -lakoan geunden.

2. Amak estuki besarkatu nau bere bularraren kontra, berak ere semea gal lezakeela pentsatuz.

3. Nonbait ezkututzen nintzen, amak berarekin eroango ninduen beldurrez.

4. Merkeagoa zela uste nuen eta eroatera joan nintzen

5. Laster nire e-maila erantzungo duzula uste dut eta agurtzen zaitut.



## MINTZAMENA

1. Egin ezazue azken atalaren laburpena ahoz.

2. Komenta itzazue ondorengo esaldiak:

“Gauza bakarra esango dizut, Helena: ez badakizu maiteminduta zauden, ez zaude maiteminduta”  
(172.orrialdean)

Egon zara inoiz maiteminduta? Eta nola jakin duzu maiteminduta zeundela? Orain maiteminduta zaude?

“Bi mutikoez jakinguraz beterik begiratu diote batak besteari, baina laster elkarrekin jolasten hasi dira, betiko adiskideak izan balira bezala. Izan ere, haurrek adiskide berriak topatzeko erraztasun handia daukate. (177.orrialdean)

Eta nagusitan, erraz egiten ditugu lagunak? Zenbat lagun dituzu? Eta lagun minak dira guztiak?

Nola liteke aldi berean ezkutatzea bi judu eta soldadu alemaniar bat etxean elkarren etsai izanda?